

## I. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA

### 1.1.1. Foru Legeak eta Legegintzako Foru Dekretuak

#### **AKATS ZUZENKETA, uztailaren 5eko 9/2006 Foru Legea, Bolondres lanari buruzko martxoaren 27ko 2/1998 Foru Legea aldatzen duena.**

2006ko uztailaren 14an eman eta 84. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaraturiko Bolondres lanari buruzko martxoaren 27ko 2/1998 Foru Legea aldatzen duen uztailaren 5eko 9/2006 Foru Legean akats bat dagoela ikusirik, zuzendu egiten da:

7570. orrialdean, bigarren zutabean, Arrazoen azalpenaren azken idatz-zatian, "...Bolondres lanari buruzko martxoaren 27ko 2/1998 Foru Legea aldatu beharra dago" dioen lekuan "...Bolondres lanari buruzko martxoaren 27ko 2/1998 Foru Legea berriz aldatu beharra dago" esan behar du.

Iruñean, 2006ko abuztuaren 8an.-Nafarroako Parlamentuko lehen-dakaria, *Rafael Gurrea Induráin*.

F0613396

### 1.1.4. Ebazpenak

#### **956/2006 EBAZPENA, uztailaren 26koa, Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektoreak emana. Honen bidez agindu da Nafarroako Unibertsitate Publikoko ohorezko goraipamenak emateko Erregelamendua onesten duen Erabakia argitara eman da-dila. Erregelamendu hori Gobernu Kontseiluak onetsi zuen, 2006ko uztailaren 4an harturiko Erabakiaren bidez.**

Maiatzaren 12ko 110/2003 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Unibertsitateko Estatutuen 40. artikulua ematen dizkidan eskumenak erabiliz, 2006ko uztailaren 4an Gobernu Kontseiluak onetsi zuen Erabakia argitaratzea agintzen du. Honako hau da: Nafarroako Unibertsitate Publikoko ohorezko goraipamenak emateko Erregelamendua. Ondoren ematen da osorik.

#### NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOKO OHOREZKO GORAIPAMENAK EMATEKO ARAUTEGIA

##### LEHENBIZIKO KAPITULUA

##### *Ohorezko goraipamenak*

1. artikulua. Honoris causa doktoregoa eta Unibertsitateko Urrezko Domina dira Nafarroako Unibertsitate Publikoak ematen ahalko dituen ohorezko goraipamen handienak.

2. artikulua. Honoris causa doktoregoa.

1. Honoris causa doktoregoa da Nafarroako Unibertsitate Publikoak esparru akademiko, zientifiko, tekniko, humanistiko edo artistikoan beren lan bikainagatik nabarmendu diren pertsona fisikoei ematen ahal dien aparteko esker on akademiko handiena.

2. Dagokion titulua errektoreak luzatuko du.

3. artikulua. Urrezko Domina.

1. Unibertsitateko Urrezko Domina Espainian edo atzerrian zientzia, letra, ikerketa zientifiko, irakaskuntza, sormen artistiko, kirol eta gizabidezko esparruan entzute handia duten pertsonen eta Nafarroako Unibertsitate Publikoari aparteko zerbitzuak eman dizkioten pertsona edo entitateei ematen zaie, esker onaren adierazgarri.

2. Domina urrezkoa izanen da, biribila, ertz irregularrekoa. Bost zentimetroko diametroa izanen du eta goiko aldean eraztun edo lotura bat. Aurrealdean Unibertsitateko armaria izanen du eta atzealdea hutsik egonen da bertan domina ematen zaion pertsona edo entitatearen izena inskribatu ahal izateko.

3. Urrezko Dominarekin batera goraipena frogatzen duen diploma bat ematen da, errektoreak luzatua.

##### BIGARREN KAPITULUA

##### *Honoris causa doktoregoa eta Urrezko Domina proposatu eta ematea*

4. artikulua. Proposatze prozedura.

1. Errektoreak egiten ahalko ditu goraipamen horiek emateko proposamenak, berak hala erabakirik edo beste norbaitek arrazoiak emanda eskaturik.

2. Prozedura proposamenak Gobernu Kontseilura igorri hasiko da.

3. Proposamenekin batera memoria bat igorriko da, non, Honoris causa doktoregoaren kasuan, proposaturiko hautagaiaren merezimenduak adieraziko baitira eta, Urrezko Dominaren kasuan, pertsona edo erakundearenak.

5. artikulua. Emateko prozedura.

1. Gobernu Kontseiluari dagokio Unibertsitateko ohorezko goraipamenak ematea eta hartaxe igorriko dira proposamenak.

2. Kasuan kasuko memoriak Idazkaritza Nagusian gordeko dira eta goraipamenak ematea erabakitzeke bilkuran irakurtzen ahalko dituzte Gobernu Kontseiluko kideek.

3. Gobernu Kontseiluak proposamen guztiei edo bakarrik batzuei ematen ahalko die eskaturiko goraipamena.

##### HIRUGARREN KAPITULUA

##### *Goraipamenak emateko ekitaldiak*

6. artikulua. Ohorezko graduko inbestidura eta Urrezko Dominaren emanaldia hots handiko ekitaldi akademiko batean egiten dira.

7. artikulua. Honoris causa doktorego inbestidurarako ekitaldia.

1. Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektoreak, unibertsitateko komunitate osoaren izenean, Honoris causa doktorea inbestituko du, ospe handiz, kasu horietan erabili ohi den protokoloari jarraituz. Lehenbizi, goraipamena emateko erabakia irakurriko da. Gero aitabitxi edo amabitxi izendaturiko pertsonak Honoris causa doktorea laudatuko du. Geroago, izaera horren bereizgarriak ezarriko zaizkio. Azkenik, Honoris causa doktore berriak zin egiten du.

2. Inbestidura ekitaldia bukatzean, Honoris causa doktore berriak bere ikasgai magistrala ematen du.

##### LAUGARREN KAPITULUA

##### *Goraipamenen erregistroa*

8. artikulua. Emaniko ohorezko goraipamenen erregistroa egiten da Idazkaritza Nagusian.

Iruñean, 2006ko uztailaren 26an.-Errektorea, Pedro Burillo López.

F0612914

## 1.2. AGINTARIAK ETA LANGILEAK

### 1.2.2. Plantilla Organikoa, Lan Eskaintza Publikoa, oposizioak eta lehiaketak

#### **1940/2006 EBAZPENA, abuztuaren 7koa, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko errepideetako laguntzaile tekniko izateko 3 lanpostu huts oposizio bidez betetzeko deialdian onartu eta baztertu diren izangaien behin betiko zerrenda onetsi eta oposizioaren lehenbiziko ariketa noiz egiten den ezartzen duena.**

Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak martxoaren 6an emandako 592/2006 Ebazpenaren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko errepideetako laguntzaile tekniko izateko 3 lanpostu huts oposizio bidez betetzeko deialdia onetsi zuen. Deialdia 2006ko apirilaren 7ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen, 42. zenbakian.

2006ko maiatzaren 22an eman eta urte horretako 70. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN, ekainaren 12an, argitaratutako 1317/2006 Ebazpenaren bidez, deialdian onartu eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onetsi zen.

Erreklamazioen epea bukatutik, bidezko da deialdian onartu eta baztertu diren izangaien behin betiko zerrenda onestea.

Bidezko da, halaber, Administrazio Erroko Langileen Batzordeak epaimahaia osatzeko proposaturiko kideak izendatzea.

Bidezkoa da, azkenik, oposizioaren lehenbiziko ariketa noiz izanen den adieraztea.

Horrenbestez, otsailaren 21eko 30/2005 Foru Dekretuaren bidez esleiturik ditudan eskurantzak erabiliz,

##### EBATZI DUT:

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko errepideetako laguntzaile tekniko izateko 3 lanpostu oposizio bidez betetzeko deialdian onartu eta baztertu diren izangaien behin betiko zerrenda onestea. Zerrenda eranskinean ageri da.

2. Administrazio Erroko Langileen Batzordeak epaimahaian izateko proposatu dituen ordezkariak izendatzea: Javier Goldáráz Prados, mahaikide titular, eta Carlos Urriza Tolosa, ordezkari.

3. Oposizioaldiko lehen ariketa 2006ko irailaren 25ean egiten da, 9:00etan, Bide eta Eraikuntza Zerbitzuko laborategiko eraikinean (Iturrondo kalea, 1, Iturroundoindustrialdea). Ariketarako deialdi bakarra egiten da eta izangaiak Nortasun Agiri Nazionala, pasaportea edo gidabaimena aldean dutela agertu beharko dute. Azterketara agertzen ez